

Gure bezeroekin izan nahi dugun harreman mota zuzeneko harremana da . Izan ere, Gure bezero bakoitzari laguntza pertsonala eskaini nahi diogu. Bezeroekin denbora pasatzen, informazio gardena eskuratzen, hala nola azaltzen nolakoa den antolamendua, zenbat ordu irauten duen, ordaindu beharreko prezio eta dauzkagun aukera desberdinak, zer nolako zerbitzuak eskaintzen ditugun eta zer arau dauden.

Bezeroa kulturtekara gogotsu eta lotuta mantzeko urtean zehar egingo ditugun ekintzen azalpena emango zaie eta protagonista bihurtzeko, hilabete monografikoak egingo ditugu. Hilabete bakoitzean herrialde bateko kultura landuko da eta herrialde horretako jatorria duten haurrak beraien esperientziak, hizkuntza...beste kideekin partekatzeko aukera izango dute. Modu horretan *etxean* sentituaraziko diegu . hileko protagonistak bihurtuz.

Gainera, bakarrik sentitu ez daitezen eta bebesa erakusteko etorkizuneko ikasketetara begira izan ditzaketen zalantzak , diru laguntzen kudeaketan , hizkuntzarekin... lagunduko diegu.. Horrela gure bezeroei gure lana ahalik eta hoberen egiten dugula erakustea, gauzak azaltzen, bezeroak gurekin gustura eta pozik egon daitezen, haiekin kontaktu zuzenean egonda eta guraso, haur eta gure arteko harreman ona sustatzen dugula ikustea.

Gure kulturteka ezagutzera emateko herriko egun berezietan parte hartuko dugu, adibidez, durangoko azokan edota gabonetako pinean, eta aldi berean ekintzak antolatuko ditugu, adibidez, herriko jai ezberdinetan munduko jolasak antolatzen modu horretan haurrak parte hartu ahal izango dute herrian ere integratuz

2022ko Durangoko azokaren kartela.

